BIZITEGI ERAIKINA — LEGAZPI 1

D MAILA



Egilea eta data: Eleuterio de Escoriaza; 1866

Deskribapena

Kantoiko eraikina, jatorriz behe oina eta lau goi oin dituena, gehi 1926ko bi jasodura; lehena fatxada planoan eta bigarrena atzeraemana. Entokatutako fatxada goi oinetan; hormigoizko begiratokiekin kantoiko alakan eta bi kaleetara ematen duen ertzeko alboetan; begiratoki hauek ere 1926an eraikiak. Behe oina oso eraldatua dago (behe oineko baoen 1933ko eraberritzea). Jatorrizko proiektua komuna zen Boulevard 3rekin. Eraikin hau bi urte beranduago egin zuten proiektuari zegokion zatia aldatu ondoren.

Babes erregimena

1.- Erregimen orokorra.
Plan Berezi honen D babes mailan integratzearekin loturikoa.
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako baoen konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta olana eta abarren ezarpena, Plan Berezi honetako Ordenantza Orokorretako babes maila horretarako ezarritako gai horiek erregulatzen dituzten irizpide orokorretara egokituko da.

2.- Berariazko erregimena.
A.- Babesetik kanpo utzitako kanpoko elementuak edo zatiak: jasodura atzeraemana (6. goi oina).
B.- Fatxadako elementu edo zati iraunkorrak: harrizko elementuak behe oinean (gaur egun ezkutatuak); elementu moldekatuak.
C.- Esku hartzeko beste irizpide zehatz batzuk: Erregimen orokor hori arautzeko baldintzak betetzeari lotutakoak, fatxadaren eta behe oineko baoen konfigurazio unitarioarekin lotutakoak barne.